

"40 urtean euskal gizartean eragiten" liburu eta dokumentalaren aurkezpenarekin ekin diote Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen 40. urteurrenaren ospakizunei

2016/10/18

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 40 urte beteko ditu aurten, eta gaur eman diote hasiera urteurreneko ospakizunei *40 urtean euskal gizartean eragiten* liburu eta dokumentalaren aurkezpenarekin. Eskoriatzako campusean egindako prentsaurrekoan, parte hartu dute, alde batetik, **Iñigo Ramirez de Okariz irakaslea eta liburuaren idazleak, Iñaki de Bilbao dokumentala egin duten ikasleetarikoa batek**, eta, bestetik, **Bixente Atxa MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektorea** eta **Begoña Pedrosa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa**.

Liburuak eta dokumentalak jasotzen dute fakultatearen 40 urteko historia. Lan biak jarri dira publikoaren eskura:

- **"40 urtean euskal gizartean eragiten" liburu PDF formatuan deskargatzeko:** <http://bit.ly/2dcDZJl>
- **"40 urtean euskal gizartean eragiten" dokumentala ikusteko:** <http://bit.ly/294jK0j>

Liburu eta dokumentala aurkezteaz gain, gaurko prentsaurrekoan aurreratu dituzte urteurrena ospatzeko ikasturtean antolatuko dituzten ekitaldiak. Jarduera horiek batez ere maiatzean izango dira eta, beste batzuen artean, antolatuko dituzte hitzaldiak atzeritik etorritako adituekin, mahai-inguruak Euskal Herriko pertsonaia ezagunekin, musika kontzertuak, ate irekiak, Txomin Txapel jaia berezia... Gainera, azaldu dute **urtean zehar antolatuko dituzten beste ekitaldi batzuk** ere, hala nola Literatur Topaketa eta Huhezinema, 40. urteurreneko giroa izango dutela.

Oraingo Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak **abiapuntua dauka 1976. urtean; hain zuzen ere, sortu zutenean Eskoriatzako Irakasle Eskola**. Erakunde hura jaio zen, besteak beste, erantzuna emateko orduko hezkuntza sistemak zuen erroka handi bati: euskal irakasleak prestatzea. Bi hamarkada Irakasle Eskola moduan egin eta gero, **1997. urtean, MONDRAGON UNIBERTSITATEA sortu zuten** Arrasateko Eskola Politeknikoarekin eta Oñatiko ETEO enpresa eta ekonomia eskolarekin batera.

Jaio zenetik, **7.000 ikasle baino gehiago izan ditu fakultateak**, horietatik guztietatik 5.000tik gora Hezkuntza ikasketak egin dituztenak. Orduetik asko aldatu dira gauza, eta, Hezkuntza graduak eskaintzeaz gain, fakultateak ematen ditu Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua, lau unibertsitate master eta hainbat aditu titulu. Gainera, 1976. urtea Eskoriatzan abian jarritako proiektuak gaur egun bi campus ditu, Eskoriatzakoa eta Aretxabaletakoa.

Prentsaurrekoan azal dute gainera, urteurrena irauten duen bitartean, logo berezia erabiliko duela Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak.



Ezkerretik eskubira: Iñigo Ramirez de Okariz, liburuaren egilea; Bixente Atxa, MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektorea; Begoña Pedrosa, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa eta Iñaki de Bilbao, dokumentalaren egileetarikoa bat.

- 40. urteurreneko argazki galeria.